



Ander Gortazar Balerdi - @andergortazar
Arkitektoa

Nire onetik

Gaztetan -gazteago-
tan?- «Family Guy» te-
lesailaren oso zalea
nintzen. Atal batean,
protagonista nagusiari
iritzi-tarte bat ematen
diote tokiko telebistan: “What Really
Grinds my Gears” edo, euskaraz hala
moduz ekarria, «Nire onetik aterat-
zen nauena». Identifikatua sentitu
nintzen, izan ere, denok dugu gure
onetik ateratzen gaituen zera irra-
zionalen bat. Nire kasuan, barandi-
lak dira. Tira, ñabardura, barandilen
gehiegizko erabilera.

Barandila: garaiera ertaineko kare-
la, normalean balaustre edo barra
bertikalez osatua eta bi langa edo ba-
randaz lotuak; eskailera bat ingura-
tzen edo espazioak banatzen dituen,
hesi baten moduan. Badakit, barandi-
lak beharrezkoak dira erorketak eki-
diteko eta mugikortasun arazoak di-
tuen jendea laguntzeko, ados, baina


iruditzen zait haien erabilera neurriz
kanpokoa dela azkenaldian. Urrutira
joan gabe: Donostian, Londres Hote-
laren parean, On Kixote eta Santxo
Panzaren eskultura bat dago, bron-
tzezkoa, metro erdiko altueran eser-
tzekeo plataforma moduko baten gai-
nean. Barandila obalatu batek
inguratzen du, zergatik? auskalo. Ba-
randila, gainera, kode tekniko bat
betzea beste helbururik ez duen ele-
mentu aurrefabrikatu horietako bat
da, inongo mimorik gabe egina, gain-
dimentsionatua eta potoloa.

**Barandilak biribilguneak bezala di-
ra, badute euren funtzioa baina ez
gaitezen pasatu.** Eroso esertzeko
moduko petrilez ordezkagarriak di-
ren barandilak. Eskoletako sarrera-ir-
teerak «babesten» dituzten barandi-
lak edo, beste modu batera esanda,
eskola baten aurretik kotxez arre-
ta handiegirik gabe pasatzea ahalbide-

ratzen dutenak. Erabilera publikoa
baina titulartasun pribatua duten bi
espazio bereizten dituen barandila.
Barandila zaharrago baten jarraipe-
na den barandila berria, aurrekoaren
neurri, erritmo, kolore, estilo eta ma-
terial zeharo ezberdinduna. Nire
onetik ateratzen nauzue.

**Karrerako irakasle baten hitzez go-
goratzen naiz halakoetan. Euskal
Herriko portuen eraldaketaz ari
zen, arrantzaren heriotzaz eta ha-
ren ondorio ezen ondorioez,** eta ai-
patu zuen aldaketa horiekin batera
nola hasi ziren barandilak ugaritzen
kai ertzetan. Kosta egiten zait hitzak
topatzea axolagabe sentitu gabe: ba-
randilek espazioak segurtatzen di-
tuzte, noski, baina baita neutralizatu
ere. Mugatu egiten dute bertan egin
daitekeena, segurtasun argudio ahul
xamar baten pean. Ez gara inozoak,
ez gara bat-batean gure burua itsaso-
ra botatzen edo ausazko oinezkoak
kaitik behera bultzatzen hasiko ba-
randilarik ez dagoelako. Nire onetik
ateratzen naute barandilek plazer
txiki batzuk ezinezko egiten dituzte-
nean. Esaterako, kai ertzean esertzea,
portua aurrean eta kaleari bizkarra
ematen, oinak zintzilik, erori-ez-ero-
ri tentsio txiki horrekin itsasertzera
gehiegi arrimatuz gero.

**Goenkaleko eszena ikoniko hark
traumatizatuta bezala bizi gara,
Maria Luisari ume-kotxeak ihes
egin zionekoak:** Mattin biloba alda-
pan behera ziztu bizian kaira bide-
an, Maria Luisa aurrera erorita, eros-
keta poltsak eskuan eta laranjak
lurrean barreiatuta. Potemkin kora-
zatuaren euskal bertsio telebisiboa,
barandila batek goitik behera zapuz-
tuko lukeena. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI